



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Larunbata
2010-05-22

VIII. URTEA 2.007. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Udal ordezkarriak, teknikariak eta Arkaitza enpresako ordezkarriak Abastos eraikinaren aurrean. I. TERRADILLOS

URTARRILEAN IZANGO DA HAUR ESKOLA BERRIA ERDIGUNEAN

TOLOSA Aste honetan hasi dira lanekin eta sei hilabetez luzatuko dira; Arkaitza enpresak egingo ditu 857.377 euroko kostua duten obrak »2

Maiatzaren 25eko greban parte hartzeko deia egin dute sindikatuak

TOLOSA ELA, LAB eta STEE-EILASEk arlo publikoko langileei zein herritarrei orokorrean, mobilizazioetara joateko eskatu diete »5

2010-2011 ikasturterako
AURREMATRIKULA maiatzaren 31tik ekainaren 11ra

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA (A eta D ereduak):
Ile-apainketa

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA (A eta D ereduak):
Estetika

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA (A ereduak):
Apainketa Estetika pertsonala

GIPUZKOAKO IKASTETXE OFIZIAL BAKARRA. IKASKETAK DOAN
San Ignazio, 25 - Tel.: 943-13 42 23 Faxa: 943-89 41 96
012291aa@hezkuntza.net - 20800 ZARAUTZ

Astlehenean hasiko da Musikaria astea

TOLOSA Hilaren 30ean amaituko dute Musika Eskolako eta Udaberrikoen emanaldiarekin »4



Togoko herri eskolako haurrak. HITZA

Hezkuntzari esker aurrera egiteko modua, Mali Elkartasunari esker

VILLABONA 20 urte ditu jada elkarteak; hezkuntzari lotutako proiektuak lantzen dituzte »6-7

TITULAZIO OFIZIALAK

ceinpro

ERDI ETA GOI MAILAKO
HEZIKETA ZIKLOAK
DISEINU GRAFIKOAN

INFORMAZIOA 943 310 873

Nazioarteko Lehiaketak
Praktikak atzerrian

Azpiegiturak » Aste honetan hasi dira lanekin, eta 6 hilabetez luzatuko dira; 857.377,67 euroko kostua du proiektuak.

INIGO TERRADILLOS

Abastosen etorkizuna eztabaidarako gai izan da azken urteetan. Herriko eraikin esanguratsuenetakoa denak Haur Eskola berria hartzea erabaki zuen azkenean Udaltzatzak, eta dagoeneko hasi dira erabilpen berria emateko egin beharreko obrek. 6 hilabeteren buruan, hau da, urtarrilean martxan egotea espero dute.

Arkaitza eraikuntza-enpresak izango du lanen ardura, 857.377 euroko kostua izango dute eta 6 hilabete iraupena. Eraikuntzaren fatxada eta teilatua berritzeaz, gain, Haur Eskola jartzeko egokitze lanak ere egingo dituzte. «Gune berritzaile eta eredugarria izango da bere sektorean, bere ingururekin elkar jokatu eta instalazioen erabilera anitza onartuko baitu».

70 haurrentzat lekua

Eraikinaren beheko solairua hartuko du Haur Eskolak, 743,10 m² guztira, eta 70 haurrentzat lekua izango du. Hainbat zonaldetan banatuko dute: haurrentzat 7 gela, jolaslekua, erabilera anitzeko gela, hezitzaileentzako gunea, sukaldia eta biltegia. Zoru bero-emaile bidezko berokuntza sistema izango

Urtarrilean martxan egongo da Haur Eskola berria Abastosen



Udal ordezkariak, teknikariak eta Arkaitza enpresako ordezkariak aurkeztu zuten atzo proiektua. I.T.

du. Bestalde, eraikinaren berritze lanek plaza Berrian ere izango dute eragina, azpiko garajeetarako sarbidea, hau da, erdian dauden igogailua eta eskailerak kendu egingo baitituzte. Eraikinaren barrutik izango dute sarbidea aurrerantzean garajeek.

Herriko erdigunean

Atzo egin zuten proiektuaren aurkezpena udaleko ordezkariak, teknikariak eta obra egingo duten enpresako ordezkariak. Jokin Bilda-

rratz Tolosako alkateak Haur Eskola Berazubitik plaza Berrira eramatearen «onurak» azaldu zituen: «Hasiera batean Haur Eskola berria Berazubini bertan egitea pentsatu genuen, baina eragozpenak asko ziren, obrak iraun bitartean haurrak non eduki, esaterako, eta azkenean Abastos eraikina zela egokiena erabaki genuen. Batetik herriaren erdigunera eramango dugu, udal eraikin historiko bat berriro dugu plaza Berriari beste itxura bat emanez, eta kontuan

hartzekoa da baita ere, Voith-eko zonaldean bikote gazteak izango direla asko eta epe motz batean haur kopuruak gora egingo duela. Beraz, gertu izango dute Haur Eskola».

Aisialdirako ere bai

Bestalde, Jokin Bildarratzek gehitu zuenaren arabera, merkatarik elkartearekin ere ari dira hitz egiten proiektu berriaren inguruan: «Haur Eskola itxita dagoenentzako, esaterako larunbatarratsalde-

» DATUAK

- **Proiektua.** Abastos eraikinean Haur Eskola berria egokitzea.
- **Iraupena.** 6 hilabete.
- **Obraren ardura.** Arkaitza eraikuntza enpresa.
- **Aurrekontua.** 857.377,67 euro.

Haur Eskola

- **Azalera.** Eraikinaren beheko solairua hartuko du. 743,10 m².
- **Zonaldeak.** Sarrerak hiru gune izango ditu ume-kotxeak uzteko; 0-1 urte bitartekoentzat hiru gela, zona bereizi bat janaria prestatzeko, beste lau gela 1-2 urte bitartekoentzat eta komunak eta sehasken gela konpartituak; jolasleku bat; erabilera askotara zuzenduriko gunea, hezitzaileen zona zuzendaritza eta hezitzaileen gelekina eta komunak eta garbiketa gelekina; sukaldia; eta biltegia. Zoru bero-emaile bidezko berokuntza sistema izango du.

tarako, beheko solairuko patio zentrala ekintza desberdinetarako erabiltzea ari gara pentsatzen; gurasoek erostetako egiteko aukera izango lukete, haurrak eraikinean dauden bitartean, eta horrela merkataritza bultzatuko genuke herriari bizia ematearekin batera».

Oraindik, zehaztu gabe legoke lehendabiziko solairuak izango lukeen erabilpena. Gazte topagunea bertan jartzea pentsatu dute, baina adostu gabe dute ideia hori, eta aztertuko dute.

Maiatzaren 25eko grebara deitu dituzte herritarrak

Ekonomia » Espainiako Gobernuak zerbitzu publikoetan ezarri berri dituen murrizketen aurka egingo dute protesta.

I. TERRADILLOS

Euskal Herriko gehiengo sindikalarren, hau da, ELA, LAB eta STEE-EILAS sindikatuen, arabera Nafarroako eta EAEnko gobernuak bere gain hartu dituzten Espainiako Gobernuaren murrizketa neurriek «oso modu larrian» eragiten



ELA eta LAB sindikatuak eta Tolosaldea eta Goierriko arlo publikoko langileen ordezkariak atzo eginiko agerraldiaren une bat. I.T.

rera murriztu egingo dituzte, eta 2011. urtean, berriz, izoztu. Grebara deitu duten sindikatuen arabera, «eskaintzen diren zerbitzuak, hauen kalitatea eta langileen lan baldintzak desagitea dute helburu». Halaber, neurri horiek «arlotan publikoak eraitsi eta pribatizatzeak aurrera eramanez nahi duten estrategiaren parte» direla azaldu dute.

«Banaketa bidezkoagoa»

Euren ustez, krisia gainditzeko biderik egokiena kontrakoa litzateke, hau da, zerbitzu publikoak sendotu eta garatzea, ematen duten estaldura eta kalitatea hobetzea eta enplegu publikoa sortzea. «Neurri hauek abian jartzeko aberastasun nahikoa eta gehiago sortzen dugu, banaketa bidezkoagoa eta borondate politikoa besterik ez dira behar horretarako». Adierazi dutenez, krisia hasi zenetik horrelako erabakiak hartzea eskatu izan ditu gehiengo sindikalak, «baina gobernuak ez dituzte aintzat hartu, eta ondorioak ezin okerragoak dira».

Bestalde, finantziario-erakunde eskuetan Europar Batasuneko gobernuak jarritako dirua eka-ri dute gogora; «230.000 milioi ja-

riko dituzte Espainiako Gobernuak, eta 61.000 euro dira jada erabili direnak. Iragarri berri dituen neurriekin, berriz, 15.000 milioi aurreratu dituzte, finantza-sistemari emandakoaren laurdena. Argi geratzen da, beraz, non dauden lehentasunak».

«Neurriak ez ditzatela aplikatu»

Gauzak horrela, esparru publikoko langileak deitu dituzte grebara, eta herritar guztiak mobilizazioetara. Horrez gain, herri administrazioei eskaera luzatzen diete Espainiako Gobernuak ezarri nahi dituen erabakien aurrean: «Ez ditzatela aplikatu, eta gure eskubide sozialak babestu, zerbitzu publikoak garatu eta sortzen dugun aberastasuna behar sozialetara bidera dezatela».

Maiatzaren 25ean Donostian egingo dute manifestazioa bulebarretik abiatuta, 11:30ean. Tolosaldea eta Goierriren kasuan, protesta ekitaldi gehiago aurreikusi dituzte: 08:00etan auto karabanak egingo dituzte Zumarragan eta Beasainen; ondoren, 09:30ean, elkarretaratzeko egingo dituzte Zumarragako ospitalearen eta Tolosako udaletxearen aurrealdean.

Iragarki laburrak

ALOKAGAI

■ **Villabona.** Arroa auzoan etxebizitza alokatzen da. Egoera onean dago. Interesatuak deitu 943 67 60 82 zenbakira.

BESTERIK

■ **Txakurkumea.** Txakurkumeak oparitzen dira. Interesatuak dei dezatela 618 25 49 71 telefono zenbakira.

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

Jogurta

Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633



Eraikuntzako langileak kalean

EKONOMIA ■ Eraikuntzako sektorean lan egiten duten langileek manifestazioa egin zuten atzo goizean Tolosako kaleetan eraikuntzako hitzarmenaren aplikazioa eskatzeko. LAB eta ELA sindikatuak izan ziren deial-

dia egin zutenak. Triangulotik plaza Zaharrera joan ziren gaur egun ematen den eraikuntza politika salatuaz. Udaletxera iristerakoan alkateari zuzenduriko oihuak ere bota zituzten. **LERRADILLOS**

'Piedra a piedra' antzezlanaren eskainiko dute bihar, Topic-en

Kultura ■ Isidro Ferrerrek idatzitako izen bereko liburu batean oinarritzen da lana; objektuen arteko jolasak dira nagusi.



Tian Gombau da antzezlaneko protagonista. HITZA

ERREDAKZIOA

Bihar 12:30etik aurrera haurrei zuzenduriko antzezlanaren ikusi ahal izango da Topic Txotxongiloen zentroan. *Piedra a piedra* izena du ikuskizunak, eta Valentziako Theatre de l'Homme Dibuixat konpainiarena da.

Isidro Ferrer diseinatzailearen izen bereko liburuan oinarritzen den antzezlanaren da. Rosa Diazek idatzi eta zuzendu du eta antzezle bakarra du, Tian Gombau.

Objektuekin egindako ikerketa bat, oinarrian

Gaztelaniaz izango den ikuskizunaren aktoreen lana, objektuekin egingo duten antzezpena eta kontakizunak dira nagusi.

«Objektuekin egindako ikerketa lan batetatik jaio zen proposamen hau. Neska-mutilen gertutasuna bilatzen du, horrela hondartzetako eta erreketako harrien adierazteko ahalmena erakusteko», argitu dute sortzaileek.

Muntaian Isidro Ferrerrek sortutako elementuek bizi hartzen dute. Ura, harria, hondarra eta egurra bezalako elementuek eszenografiaren zati dira.

Antzezlaneko elkarrizketak ere beste elementu bat dira, materialen eraldaketa azaltzeko erabiliko dituztenak, hain zuzen.

2011ko Tolosako Egutegian parte hartzeko epea zabaldu dute

Kultura ■ Irailaren 16a da irudiak bidaltzeko azken eguna; aurtengoan erretratuak atera behar dira.

ERREDAKZIOA

Azken urteetan egin bezala Tolarrik eta Tolosagaskak 2011ko Tolosa Egutegia egingo dute herritarren artean jasotzen dituzten argazkiekin. Parte hartu nahi dutenek oinarriak Tolosagaskaren blogean topatuko dituzte (<http://tolosagasa.blogspot.com>).

Erretratuak

Aurtengoan erretratuak izango dira nagusi eta argazkiak aurkezteko epea irailaren 16an bukatuko da. Berrikuntzarik ere badago, izan ere argazki erakusketa bat ere antolatuko dute Aranburu Jauregian.

Erakusketa jasotzen dituzten 40 argazkirik onenak bilduko dituzte eta ondoren, bisitariak argazkirik onena bozkatzeko aukera izango dute. Bozka gehien jasotzen dituen argazkiak Publikoaren Argazkia izeneko bereizpena jasoko du. Parte hartzaile bakoitzak gehienez 25 argazki bidali ahal izango ditu eta epaimahaiak urriaren 16an aukeratuko dituzte argazkirik onenak.

Irabazle guztien izenak www.tolosakoudala.net eta www.tolosagasa.blogspot.com webguneetan argitaratuko dituzte eta baita prentsan ere.

» ASTEBURUKO KIROL JARDUERA

Usabal kiroldegia

■ **Saskibaloia.** Goiko kantuan gaur saskibaloiko eskolarren finalak 10:00etatik aurrera: Mundaiz-Iraurgi eta Mary War-Karmelo Etxegarai; 12:00etatik aurrera neskek: Iraurgi-Easo. Beheko kantuan 10:00etatik aurrera berriz, saskibaloiko eskolarren finalak: Easo Izarra-Izarra Urkitza.

Bihar 11:00etatik 13:00etara goiko kantuan saskibaloiko teknikazioa 1998, 1999, 2000 eta 2001. urteetan jaiotako gazteentzat. Tolosaldeko ikastetxe guztietako gazteei zabalduko da deialdia da. Informazio gehiagorako www.takesb.com webgunera sartu edota takesb@takesb.com helbidera idatzi.

■ **Areto futbola.** Gaur 18:00etatik aurrera goiko kantuan areto futboleko finala: Laskorain-Allerru.

■ **Eskubaloia.** Bihar 09:30ean goiko kantuan eskubaloiko kadeteak: Tolosa CF-Zarautz.

■ **Futbola.** Gaur 09:00etan futbol zelaian ekamumezko kadeteen Tolosa CF-Ordizia eta mutil infantilen Anoeta-San Patricio. 10:30ean emakume kadeteen Tolosa CF-Añorga. 12:00etan kadeteen Tolosa CF-Anaitasuna eta 15:30ean erregional 1 mailako Amaro-Asoleos.

Uzturpe ikastola

■ **Tolosa Kup.** Tolosa Kup-eko partidak gaur 14:00etan eta bihar 13:00etan.

Zerkausia

■ **Arrantza.** Bihar 08:00etatik 14:00etara XXXVI. Infantilen Amurrair Arrantza Txapelketa Probinziala.

Euskal sukaldaritzaren errezeta ezagunenak
José Castilloren eskutik

EUSKARAZKO LEHEN SUKALDARITZA BILDUMAREN 3. alea

berriaren harpidedun eta irakurleek erdi prezioan 12€

Aurke bi aleak ez badituzu eskuratu, eskatu orain. Hirugarren alearekin batera jasoko dituzu.

EGIN ESKAERA ekainaren 11 baino lehen www.berria.info harpidetza@berria.info 943-30 43 45

Aurke ezazu, bizi euskaraz, berria

Harpidedun egiten bazara aisialdirako **bonu bat opari**

Eroski Bidaiek eta Baskinbox etxean eskutik.

40 eskaintzatik gora aukeratzeko Euskal Herrian zehar.

Goatu berria.es

Hotel bateko egonaldi bat, 2 laguntzako bazkari bat edo abentura eta kirol ekitaldi bat izango duzu aukeran.

HARRERAKO ETORRAKO
943-30 43 45 • harpidetza@berria.info

berria

Uztailaren 15ean Tenerifeko astebeteko egonaldia zotz egingo dugu BERRIaren harpidedunen artean, Eroski Bidaiek-en eskutik.

Orain, beste arrazoi bat BERRIaren harpidedun izateko.

EROSKI / Baskinbox zuzen

Aurke ezazu, bizi euskaraz, berria

L **Laburrak****Gipuzkoako Absolutu Txapelketa Villabonan**

HALTEROFILIA ● Goizeko 10:00etatik aurrera, Villabonako Olaederra kiroldegian, Gipuzkoako Absolutu Txapelketa jokatu da gaur. Bertan, Zarautzeko, Irungo eta Danenako pultsulariek parte hartuko dute. Txapelketa honetan, lehenengo zortziren artean sailkatzen direnek ekainaren 5ean ospatuko den Euskadiko Banakako, Taldekako eta Federazioen arteko Txapelketan hartuko dute parte.

Irurako posta bulegoa lekuz aldatu dute

IRURA ● Orain arte udaletxearen atzeko aldean zegoen bulegoan ezingo da postarik jaso. Gaurtik aurrera, toki berria du posta bulegoak. Pello Arrese z/g helbidean egongo da. Irurako Udalak kale horretan duen Kultur Gunearen eta Osasun Zentroaren eraikin berberetan, baina beheko solairuan.

Eskola Txikien Festa Girotzeko Ekitaldiak

ALTZO ● Eskola Txikien Festa aitzakitzat hartuta Girotzeko Festa egingo dute gaur, 19:00etatik aurrera. Maixa Lizarrarren hitzek emango diote hasiera. Ondoren, Loatzoren musika emanaldiak jarraituko dio. Guraso eta ikasleak modelo ere bihurtuko dira eta festarako diseinatutako elastiko eta kirol jertseak erakutsiko dituzte. Era berean, dantza emanaldia eta herriko gazteen ikuskizun bat izango dira. Eskola Txikien Festarako egin duten kantua ere aurkeztuko dute ikasle, guraso eta irakasleek.

Hastear da 16. Musikaria astea

Tolosa » Maiatzaren 24tik 30era bitartean, estilo guztietako musika entzuteko aukera izango du ikusleriak.

AGURTZANE BELAUNZARAN

16. Musikaria astea aurkeztu zuten atzo Tolosako Udal Musika Eskolan. Ekitaldia musika eskolako zuzendariak, Musikariaren antolatzailerak, musikariek eta dantzariak aurkeztu zuten.

Maiatzaren 24an, astelehenean hasiko da Musikaria eta igandea bitartean, egunero kontzertuak eskainiko dituzte Musika Eskolako ikasleek eta musikarigonbidatuek.

Berrikuntza batekin dator aurtengoa, gainera. Izan ere, igandean, hilak 30, Musika Eskolako taldeak eskainiko duen kontzertuan, Udaberri dantza taldekoen laguntza izango dute. «Ikuskizun berezia» izango dela aipatu zuten aurkezpenean, Miguel Moreno ikaslearen bandako zuzendariak eta Juan Urretabizkaia, Udaberriko dantzariak.



16. Musikariaren aurkezpen ekitaldia egin dute Musika Eskolan. A.BELAUNZARAN

Hori baino lehenago, hala ere, izango da zer ikusia. Perkupiano bikoteak emango dio hasiera Musikariari. Iraide Ansorena tolosarrrak eta Arkaitz Mendoza andoaindarrak osatzen dute bikotea.

Asteartean, *Hauspoa eta Tekla* emanaldia eskainiko dute Salvador Paradak eskusoinuarekin eta Arkaitz Mendozak pianoarekin.

Saxofoi kontzertua emango dute Tolosa, Hernani eta Donostiako Musika Eskoletako ikasleek asteazkenean.

Haur eta gurasoentzako tartea ere bada Musikarian. Ostegunean, ipuin musikatu eskainiko baitute *Botoi begidun hartzatxoa* ikuski-zunarekin. *BostArte Haize Boskotek* eta Iker Ortiz de Zarate aktoreak izango dira eskenatokiak.

Alos Quarteten kontzertua

Alos Quartetek ostiralean emango du kontzertua. Urrian estreinatu zuten *10 tanta* diskoaren erreperitorioa eskainiko dute, beste hainbat abestiren artean. «Musika zi-

» KONTZERTUAK

- **Maiatzak 24, astelehena.** Perkupiano bikotearen emanaldia (Musika Eskola, 20:00).
- **Maiatzak 25, asteartea.** Hauspoa eta Tekla (Musika Eskola, 19:00).
- **Maiatzak 26, asteazkena.** Saxofoi kontzertua (Musika Eskola, 20:00).
- **Maiatzak 27, osteguna.** BostArteren eskutik ipuin musikatuak. (Musika Eskola, 19:00).
- **Maiatzak 28, ostirala.** Alos Quartet (Topic, 20:30; 10 euro).
- **Maiatzak 29, larunbata.** Tolosako Musika Banda (Berdura Plaza, 19:00).
- **Maiatzak 30, igandea.** Udaberri dantza taldea eta Musika eskolako ikaslearen banda (Leidor, 12:00).

klo honetan parte hartzea, etxeko enetalagunen aurrean, aukera oso polita» dela aipatu zuten Xabier Zeberio partaideak.

Era berean, Berdura plazan, kontzertu irekia emango du larunbatean Tolosako Musika Bandak.

Txintxarri Abesbatza Idiazabalena, gaur**ERREDAKZIOA**

Idiazabalgo elizan 20:00tan da hitzordua. Alegiako Txintxarri Abesbatzaren 50. urteurrenoko ekitaldiaren barruan sartzen da kontzertua.

Garbiñe Orbegozoren zuzendaritzapean, 14 kantuz osatutako kontzertua eskainiko dute. Javier Bustoren *Kanta Cantemus* abestiarekin emango diote irekiera ekitaldiari. Polifonia kantuak izango dira entzungai hasiera partean. Hala, Christopher Tye konpositore ingelesaren *Laudate nomen domini* eskainiko dute eta ondoren, Javier Busto hondarribiarraren *Shorter's gloria* mugitua.

Era guztietako kantuekin jarraituko dute eta hizkuntza askotan ariko dira. Euskal musikagileek egindako konposizioekin jarraituko dute. Luis Elizalde zangotzarren *Nere andrea dantzan plazan*. Mikel Laboaren *Hegoak ebaki banizkion*, Migel Mari Azpiaren *Hego Haizea*. Luis Urteagaren *Nere etxea* edo Xabier Sarasolak, Txintxarri abesbatzari es-

kainitako *Zure boza* amodio kantua. ffl Joxe Mari Iparragirre XIX. mendeko Alegiako trapu saltzailerari eskainitako Trapu zarrak kantua ere abestuko dute. Xefe Balerdi, abesbatzako tenorea bakarlarri gisa arituko da.

XVIII. mendetan, afro-amerikarrek elizetan sortutako Gospel doinuak ere, abestuko dituzte; *The little ligh of mine* abestia hain zuzen ere. Pop doinuan, *Only you*

Carlos Gardel, argentinarraren, *El día que me quieras* tangoa entzuteko aukera ere izango da. Xabier Mingok egingo ditu bakarlarri lanak Gardelen kantuan. ffl

Emanaldiari amaiera emateko, Joxe Mari Gonzalez Bastidak konposatutako *Saratarra* doinu ezaguna aukeratu dute.

Mariaje Redondok pianoarekin lagunduko die abeslariak zenbait kantutan.



Abesbatzako kideak Portugalen, kontzertu baten ondoren. I.BONAZPIKURTA



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

H **Hilberriak****MARTIN SUKIA ARRUABARRENA**

Atzo hil zen, 50 urte zituela.
-Goian bego-

Emaztea: Kontxi Arruabarrena; seme-alabak: Eusko, Eñaut eta Ainhoa. Maiak; gurasoak: Martzelino (†) eta Karmen (†); ezkon gurasoak: Jesus Arruabarrena (†) eta Joana Sukia; senideak: Joanito (†) eta Mila Imaz, Rosa Mari (†), Isidro eta M^a Angeles Maiz, Joxe eta Karmele Aierbe; ezkon senideak: Pepi eta Mikel, Sabina, Simon eta Ane; osaba-izebak, ilobak, lehengusak eta gainerako ahaideak.
Hileta elizkizuna GAUR, LARUNBATA, arratsaldeko BOSTETAN, SAN MARTIN parroki elizani izango da. Eskerrik asko guztioi aldeaz aurretik.



ATAUN
2010eko
maiatzaren 22a

Helbidea: Zubikoeta baserria.
Oharra: gorpua Beasaingo Goierri Beilatokian egongo da gaur 13:30a arte.

MARTIN SUKIA ARRUABARRENA

Zure alaitasuna eta bizitzeko griña bitariko gure bihotzean izango ditugu.

Albitxuko ilobak



ATAUN
2010eko
maiatzaren 22a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan **DOAN** agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan **120.000** irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Michelin Power Cup-eko sailkapen orokorreko 2. postuan da Alonso

Ibarra » Pasa den asteburuan Valentzian izan zen hirugarren lasterketan, aldiz, hirugarren egitea lortu zuen gidariak.

ERREDAKZIOA

Ibarrako Koldo Alonsok hirugarren postua eskuratu zuen Series 600 mailan, pasa den asteburuan Chesteko (Valentzia) Ricardo Tormo zirkuituan izan zen Michelin Power Cup-eko 3. lasterketan. Txapelketako sailkapen nagusia 2. postua berreskuratzea lortu zuen, honenbestez.

Txapelketa osoko probarik gogorrena izan zen Valentziako lurraldeetan lehiatu zena. Chestebelazalako mundu mailako zirkuitu

batean parte hartzeko ideiak erakarrita gidari berri on askok eman zuen izena lasterketa honetarako, txapelketaren partaide kopurua eta maila nabarmenki igoaz.

Lehen entrenamendua galdu zuen, berriz ere

Alonsok esandakoaren arabera, beste behin ere, taldeak ostiraleko entrenamendu libreak galdu zituen eta honek arazo asko ekarri zizkion ibartarrari lasterketa irteerarako sailkapen on bat lortzeko. Larunbat goizeko aurreneko entrenamendu kronometratua galdu zuen gidariak eta beraz, Chestekoa zirkuitu zail eta teknikoak denez gidariak zailtasunak izan zituen bertan moldatzeko.

Bigarrenen kronometratuan aldiz, «nahiz eta kubiarten egoera



Zailtasunak zailtasun, emaitza txukunak lortu ditu Alonsok. HITZA

oso kaxkarra izan», taldeak lasterketarako 9. sailkatzea lortu zuen, irteerarako bere mailan 6. postua lortuz. Aurtengo lasterketa guztietan bezala, aurreneko biratan postua mantentzeko arazoak izan zituen Alonsok, momentu batean bere bere mailan 8. posturaino jaitsiz.

Baina 4. biratik aurrera, gerora lasterketaren 2. denborarik azkarrena izango zen eritimoan biratzea lortu zuen, berriz ere lasterketa buruko taldera itzuliz.

Series 600 mailan 3. postuan zegoen gidariarekin «borroka gogorra» mantendu zuen, lasterketa er-

dialdera aurreratzea lortu eta podiumeko postuetaraitzuli zen arte. Baina, lasterketa bukaera aldera arazo asko zituen eritimoa mantentzeko, bibira besterik falta ez zirenean atzean zuen gidaria berriz ere aurreratu egin zion, azkenik, lasterketako 6. postua lortuz eta Series 600 mailan 4. izanik.

Sailkapenak, hala ere, azken aldaketa bat izan zuen, lasterketa ondoren, izan ere erreklamazioak egon ziren zenbait motorren irregularitasunak zirela eta eta lasterketa irabazi zuen gidaria deskalkifikatua izan zen azkenean, Alonsori bere mailako 3. postua egotziz eta txapelketarako oso garrantzitsuak diren puntuak irabaziz.

Azken lasterketa irailaren 26ean

Orain, taldeak sailkapen nagusiko 2. postua berreskuratu du, nahiz eta lehen sailkatua oso urrun mantendu hirugarrenarekiko, abantaila garrantzitsua lortu du txapelketa amaitzeko lasterketa bakarra geratzen denean.

Antolakuntzaren azkeneko aldaketa batengatik, azkeneko lasterketa hau irailaren 26ean izango da Alcañizeko (Teruel) Motorland Aragon zirkuitu berri eta ikusgarrian.

Bigarren Eskuko Azoka ekainaren 4an

Ibarra » Villabonan izango den azokan parte hartu nahi duten ibartarrek hilak 31 baino lehen deitu beharko dute udaletxera.

ERREDAKZIOA

Datorren ekainaren 4an Bigarren Eskuko Azoka ospatuko da Villabonan, Aste Berdearen ospakizunen baitan. Euren jabetzak salgai jarri nahi dituzten ibartarrek ekimen honetan parte hartu ahal izango dute eta horretarako, udaletxera deitu beharko dute hilaren 31 baino lehen.

Elkarlana

Azoka hau Aduna, Alkiza, Anoeta, Asteasu, Ibarra, Irura, Zizurkil eta Villabonako udaletxeek elkarrekin sustatu duten ekimena da. Azken udalerririk honetako Barazki plazan egongo da azoka eta bigarren eskuko gauzak saltzeko postu ezberdinak ipiniko dituzte bertan.

Postuak antolatzaileek jarriko

dituzte, eta jarritako baldintza da interesatua bera 16:30ean azokara joan eta postua prestatu beharko duela, azoka 17:00etatik 21:00etara egongo da zabalik. Denbora tar- te horretan zehar, antolatzaileek birziklatze tailerrak egingo dituzte azokara gerturatzen diren haur- rentzako.

Interesatuta dauden ibartar guztiak Ibarrako Udalarekin jarri beharko dute harremanetan ondorengo telefonora deituz 943-67 1138, 09:00etatik 14:00etara.



Iaz ere egin zuten azoka. I. GARCIA

Jaietako herri afarira joateko tiketak erosteko azken eguna, asteazkena

Txarama » Afaria hilaren 29an izango da; Astiasaran trikitilariak eta bi bertsolari ere izango dira.

ERREDAKZIOA

Datorren asteburuan, hilak 28 eta 29, izango dira Txaramako jaiak. Ekitaldi ugari prestatu dituzte, horien artean urteroko herri afaria. Larunbatean, hilak 29, izango da 21:00etatik aurrera eta tiketak erosteko azken eguna asteazkena izango da, hilak 26. Bi modu daude tiketak eskuratzeko, asteartean elkartera 20:00etatik 21:00etara gerturatuta edo telefono zerbaki hauetara deituta: 650-27 65 10 (Mª Jose) edo 646-64 22 67 (Amalia).

Tiketak 30 euro balio du eta hau da menua: entsalada nahasia, foie saltsa goxoarekin, onddo pudinga, arkuere errea patatekin eta trufazko tarta. Ogia eta edaria ere banatuko dituzte tiketekin.



Gipuzkoako txapelakunak

IBARRA » Pasa den asteburuan Villabonako Olaederra Kiroldegian Gipuzkoako areto futboleko finala jokatu zen eta Ibarrako Uzturpe Ikastolako neska kadeteen taldeak irabazi zuen. Neskak, beraz, areto futboleko euren mailako Gipuzkoako txapelakunak dira. Uzturpe Ikastolako zori ondu egin nahi izan ditu. HITZA

Arropa azoka txikia
Emakumezkoak zein gizonezkoak
Marka ezagunenak merkeen pare

15 egun bakarrik !!



Erniobidea, 23 (Elbarrena Auzoa) Zizurkil.
Telefona 943 690424
ZIZURKIL eta ASTEASU ARTEKO
BIDEGORRIAREN ONDOAN

Maiatzaren 24tik ekainaren 5era

Asteleheneetik ostiralera: 10:00etatik 18:00etara
(eguerdian irekita)
Larunbatetan: 10:00etatik 14:00etara

Gidariak behar dira dokumentazioa eta balijak banatzeko.
Postu finkoak erakunde publikoetan.
Lanaldi jarraia.

610-71 97 82

Lan publikoetarako zaintzaileak, igeltseroak, arotzak, argiketariak, eta mantenurako langileak behar dira.
Lanpostu finkoak.

600-97 74 95

Telefonistak/harreragileak behar dira eraikin publikoetarako.
Postu finkoak.
Lanaldi jarraia.

607-25 42 40



Mali Elkartasuna elkarteak hezkuntza proiektuak bultzatzen ditu; Togo herrian dagoen eskolako haurrei beka ordaintzen dizkiete. HITZA

HEZKUNTZA OINARRI

Villabona » Mali Elkartasuna elkarteak hainbat proiektu bultzatzen ditu hezkuntzari lotutakoak; bertako kide dira Aloña Arruti eta Igor Alejo.

IMANOL GARCIA

Lagun talde batetik sortu zen Mali Elkartasuna elkartea orain 20 urte inguru. Egun 20 lagun inguru daude elkartearen, artean Aloña Arruti eta Igor Alejo billabonatarak.

Arruti eta Alejo ez daude hasieratik elkartearen, orain bost urte inguru sartu ziren, baina eza gutuzten dute sorrera: «Hasieran taldea ez zen sortu Hirugarren Munduari begira. Sinesmenaren inguruko hausnarketa talde bezala sortu zen, zerbait informalagoa. Hiru apaiz elkartu ziren eta beraien adiskideak ziren familia batzuk». Bilerak egiten hasi ziren eta pentsatu zuten zerbait gehiago egin behar zutela, pauso bat eman nahi zutela eta elkartasunaren bidetik egitea otu zitzaizen. «Kontaktua bat zuten Malin, Togo izeneko herri batean, eta hortik hastea pentsatu zuten», azaltzen du Arrutik.

Elkartean urte hauetan zehar beste kide batzuk sartu dira. Horrez gain, hainbat kolaboratzaile daude, eskualdean ere, besteak beste dirua ematen dutenak elkarteak bultzatzen dituen proiektuentzako. Kideak hilean behin biltzen dira.

Hezkuntzaren garrantzia

Lehen elkartasun ekintza, eta oraindik elkartearen ardatza dena, Togo herrian dagoen eskolako haurrei beka ordaintzea izan zen.

«Orduan ikasle gutxi ziren. Gaur egun 100 ikasle ingururi ematen zaizkie beka», diote elkarte kideek. Eskola hori San eskualdeko elizbarrutiak kudeatzen du. Togo herrian dago elkarteak duen kontaktua, Herve Tienu. Berak kudeatzen du beka nola banatzen diren ikasleen artean.

«Ikasle asko joaten dira eskola horretara», diote elkarte kideek. «Ehun kilometro inguruan bizi diren ikasleak joaten dira. Eskola elizbarrutikoa da eta pribatua da. Estatuak baditu eskolak, baina esaten dute ez dutela ondo funtzionatzen eta guraso askok elizbarrutiko eskoletara bidali nahi izaten dituzte seme-alabak». Ikasleek diru

«Gure ustez Mali aurrera ateratzeko beraien eragina izan behar du nagusi»

«Elkarte txikia gara; dirua dugun heinean joaten gara proiektuak finantzatzen»

kopuru bat ordaindu behar dute eskolara joateko. «Dohainik izango bazen familiek ez zioten garrantzirik emango hezkuntzari», azaltzen dute.

Ikasleak urrutitik joaten direnez, barnetegi bat dago eta bertan



Igor Alejo eta Aloña Arruti, Mali Elkartasuna elkarte kideak. I. GARCIA

logela batzuk eta jangela dituzte. «Ikasle askok ez dute dirurik horra joateko eta horregatik sortu zen beka jartzearen kontua». Urtero diru kopuru bat bidaltzen diote Tienuri. «Berak ematen du hango ekonomia guztia eta familien beharren arabera banatzen ditu beka», diote. «Bekak emateko irizpidea urte horretan jasotzen den uztaz izaten da».

Malin eurria bakarrik hiru hilabetetan egiten du: ekainetik abuztura. Batez ere artatxikia landatzen dute. Azaroa eta abenduan jasotzen dute uztza eta garai horretarako badakite zenbat artatxiki duen familia bakoitzak. Beraz, urtarrean erabakitzen dute

ikasle bakoitzak zenbat ordaindu behar duen eta zenbateko beka jasoko duen.

Mali Elkartasuna elkartetik hezkuntza bultzatzen dute bereziki. «Pentsatzen dugu Mali herrialde bezala aurrera ateratzeko beraien eragina izan behar dela nagusi eta horretarako bidea hezkuntza dela», diote.

Bide horretan aurrera egiteko, baina, arazo bat dute: ez dago irakaslerik. Irakasle-eskola bakarra dago eskualdean. «Eskolarekin dagoen arazo berdina da: irakasle-eskolako ikasleak urrutitik joaten dira ikastera. Bestalde, hiru urteko karrera da, hemen bezala, eta lehenengo urtean duten diru guztia

gastatu ohi dute ikasleek eta, beraz, beste bi ikasturtetan ez da ikaslerik izaten».

Malitik barnetegi bat egiteko diru laguntza ematea eskatu dute, logelak, jangela eta abar egiteko. «Proiektu handia da, aurrekontu handikoa», diote kideek. «Gu talde txiki bat gara eta ahal dugunarekin laguntzen dugu. Oraingoz logelak finantzatu ditugu. Dirua daukagun heinean joaten gara gauzak finantzatzen, baina gure aukerak oso mugatuak dira».

Elikagaiak eta egurra

Bekekin batera, beste proiektu garrantzitsua plantazioaren da, urtero diruz laguntzen dutena. Eskola-

tik 20 kilometrotara dago, Bani ibaiaren ondoan. Arroza, mangoak, tipulak, platanoak, egurretarako zuhaitzak... landatzen dituzte bertan.

Plantazioaren helburua alde batetik eskolaren barnetegirako janaria izatea da, eta bestetik, egurra lortzea. Argindarrak ez dute eta egurra erabiltzen dute janaria prestatzeko. «Egurra erabiltzen dute dena egiteko», diote. Alor horretan «arazo handia du Malik, herrialdearen erdia Sahara basamortua delako. Eta zuhaitzak moztu ahala basamortua gero eta beherago doa eta lurra gero eta pobreago egiten da». Horregatik, eskolarentzako egurra lortzeaz gain, zuhaitzak landatzeak ere basamortua hedatu ez dadin kontzientziazio lana egiteko balio duela diote.

Biodiesela ere landatzen dute. «Beste herri batzuk lortu dute argindar guztia biodieselaren bitartez. Gasolina hemengo prezioan dago eta beraz beraientzako oso garestia da», diote. Bestalde, Togo herrian bigarren plantazio bat bultzatzen ari dira elkartetik.

Beste proiektu bat eskolan nesken zako logela eraikitzea izan da. «Lehen neska oso gutxi zeuden eta



San hirian ordenadoreen gela bat finantzatu dute elkarteek eta bisita egin zute proiektuaren berri jakiteko.^{HITZA}

«Herrialde horietarako proiektuak hemendik sortzen dira askotan eta hori da akats handiena»

«Beraien artean dena eman diote elkarri, nahiz eta ezer ez izan; hemen balore hori galdu dugu»

orain gero eta neska gehiago joaten dira», azaltzen dute. Logela hori eraiki dute eta horretara ere bideratu dute diru laguntza.

San hirian ere proiekturik finantzatu dute elkartetik. Gela batean internetera sarbidea duten ordenadoreak jarri dituzte. Moja batzuen bitartez eginiko egitasmoa izan da.

Iaz gauzatu zuten beste egitasmoa edukiontzia bidaltzearena izan zen. Kamioi handi baten edukiontzia bidali zuten, dena beteta, eta jakin izan dutenez, maliarrek ondo jaso zuten bidalitako guztia.

Bidaia Malira

Bi urtetik behin, edo zenbaitetan urtero, taldekide batzuk bidaia egiten dute Malira proiektuen jarraipena egiteko. Iaz Arruti eta Alejo joan ziren. Beraiekin batera Joxan Larrañaga taldekidea - Villabona-ko parroko ohia -, eta elkarteke bi kolaboratzaile, Txomin Garmendia eta Jose Mari Etxabe amasarriak joan ziren.

Arruti aurretik Malin izana zegoen, baina Alejorentzat leheneño aldia zen. «Elizbarrutik antolatzen diren eta Hirugarren Munduan egiten diren lanaldien bidez izan nintzen han», dio Arrutik. «Lanaldi horretan Togo herrian izan nintzen eta gero elkarteetan sartu ginen».



Iaz elkarteek egin zuten proiektu nagusietako bat edukiontzia bidaltzea izan zen. Produktu asko sartu zituzten bertan, tartean autoa bat ere bai.^{HITZA}

Hamar egun izan ziren bertan. «Proiektuak nola doazen eta beraiekin harremana mantentzeko joaten gara bertara. Komunikazioa Malirekin oso zaila da. Bidaia egiten dugunean elkartasuna mantentzeko aukera da. Gainera, elkartetik norbait joaten denean, proiektu gehiago aurkezten dituzte».

Laguntza bideratzeko moduari buruz, Mali Elkartasuna elkarte-koek argi dute handik proposatu behar direla proiektuak: «Askotan gertatzen da herrialde horietarako

proiektuak hemendik sortzen direla eta hori da akats handiena. Hemen pentsatutako proiektua agian beraientzako ez da egokia. Guk bultzatzen ditugun proiektuak beti beraiegiandik etortzen dira». Elkarte txikia dela diote eta medio asko ez dituztela azaltzen dute kideek. «Beraiek badakite guk zenbaterainoko laguntzak ematea dugun. Ez gara elkarte handi bat».

Espertentzia berezia izan zen Malin izatea. «Gonbidatu bereziak bezala hartzen gintuzten, bere kul-

turaren ezaugarria delako», diote. «Beraiek dena ematen diote elkarri, nahiz eta ia ezer ez izan. Hemen galdu dugun balore hori bizi dute han».

Halere, herrietan hirian baino gehiago ikusten zuten eskuzabal-tasun hori. «Hiriak ezberdinak dira. Bamakon agian ez duzu hori topatzen hainbeste», azaltzen dute. «Herrietara bisitan joan eta ateratzen zinen sei oilaskorekin. Daukaten onena ematea da beraientzako eskertzeko modua».

Malin topatu zuten beste ezau-

garri berezia hango biztanleen poztasuna da. «Inongo aberastasiunik lortzeko aukerarik ez dutenez, ez dute liskarrik, ez gerrarrik. Ez dute ezer materialik, baina pozik bizi dira». Malin biztanleen %94a musulmanak dira, baina elizbarrutiaren eskolara joaten dira. «Ikasleen %80tik gora musulmanak dira», azaltzen dute.

Afrikako herrialde horretan bizitakoak, egun gutxi izan baziren ere, billabonatarrei ukitu ziren. «Zure eguneroko bizitzan ikuspe-gia zerbait aldatzen duzu».



21°
13°

GOIZA OSKARBI
ARRATS. OSKARBI
BEROENA 23°
HOTZENA 15°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 118. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altxo, Amezketza, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agurrak



Zorionak Irati!

Amezketatik Briervaraino 25 mihizkada zuretzat! Matte Zatteu! Eutsi neska!



Etorkizunari begira

TOLOSA « Zutik Tolosa, Zutik Euskal Herria gaia landu zuten herenegun iluntzean Topic-en. Tolosako ezker abertzaleak antolatutako hitzaldia eta jende asko gerturatu zen. Ezker abertzaleak azaldu zenez,

«gure herrian benetako demokrazia eta benetako ba-ke lortzeko une oso garrantzitsuan da» honakoa eta beraz «gizarteak abiarazitako prozesu demokratikoa gauzatzeko» oinarriak finkatzeko garaia da. HITZA

A Agenda

Dantza

■ **Tolosa.** Goienetxe Fundazioko kideen eta Aldea de Bambas taldearen capoeirako dantza ikuskizuna Armeria plazan (Jurasic Park bezala ere ezaguna) 17:30ean.

Aisialdia

■ **Tolosa.** Ereite antolatutako Mundu Jaia Berdura plazan. Goizean zehar tailerrak, jokoak eta eskulan erakustaldia zein salmenta izango dira. Arratsaldean aldiz, 17:30ean Raks Al Haia eta Bastet Tribal Group, 18:30ean Alurr, 19:30ean Codigo Habana eta 22:00etan Africa Baj Yai.

Jaiak

■ **Ibarra.** Izaskungo jaiak: 18:30ean zaldi lasterketa; 21:00etan bertso-afaria Izaskun jatetxean Mañukorta eta Zeberio bertsolariekin.

Zinema

■ **Tolosa.** *Simplemente* filma Leidor aretoan 19:30ean. Emanaldi berezia, bonutik kanpo.

Kirola

■ **Anoeta.** Joxemari Mendizabalen I. Oroimezkoa Benta Aldea bodegoian 12:00etan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Tolosa, M. I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.
■ **Lekunberri.** Mendia, M. I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Urte askoan!

Patxi Larreta (Tolosa).

Aitona, gaur egun handia!
100 urte!!
Jarraitu orain arte bezalaxe.

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak

Mesedez,
ekarri
argazkia
bi egun
lehenago.

agurrak

AROTZERI ETA ALTZARI FABRIKAZIO ikasketak



AUREMATRIKULAZIOA MAIATZAREN 31 TIK EKAINAREN 1 IRA

Zatuz ezagutzera
(instalazioak, makinaria, laborategia . . .)

ATE IREKIAK:

- Maiatza 27 osteguna arratsaldeko 6:00 tatik aurrera
- Maiatza 29 larunbata goizeko 10:00 tatik aurrera
- Beste egun batean nahi izanez gero deitu aurrera

UROLA LANBIDE HEZIKETA INSTITUTUA
Altamira auzoa z/g 20720 AZKOITIA
Tel. 943 852174/943 851 507